

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen Nafar Kontseilu berriak lehen bilera egin du

Ordezkarikopurua handitu du 22tik 33 kontseilukidera

Asteartea, 2018.eko maiatzak 22

Euskararen Nafar Kontseilu berriak lehen bilera egin du gaur goizean, 33 kiderekin (lehen 22 zituen). Martxoan onartutako [egitura](#) berriari Ana Lujanen izendapena gehitu behar zaio, Nafarroako Parlamentuak izendatua. Egitura berria kide anitzeko organoen analisiaren bidez ezarritako irizpideetan oinarritzen da; analisia gobernuak berak egin zuen 2016ko urrian.

Gaurko bileran, 2017ko jardueren memoria aurkeztu dute. Halaber, Euskararen Lehen Plan Estrategikoaren aplikazioaren berri eman dute, eta Planean jasotako ardatz ezberdinak 2017an zenbateraino bete diren azaldu dute.

Nafarroako Herri Administrazioetako euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren esparruan, Nafarroako Gobernuaren Departamentu ezberdinetako plangintza-lanen hasieraren berri eman dute (dekretuko 6. artikuluan jasotzen direnak). Ondorengo departamentuak nahiz Enpleguaren Nafarroako Zerbitzua eta Turismoko Zuzendaritza Nagusia jada hasi dira plangintzak egiten, diagnostikoan eta plazen komunikazio-premietan oinarrituta: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak; Osasuna; Hezkuntza; Kultura; Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa; Ogasuna eta Finantza Politika.

Bileran, Euskaraldia abian jartzeko Topagunearekin sinatutako hitzarmena landu dute; baita ere, toki-mailan proiektua aktibatzeke egingo diren kudeaketak eta aurrera eramateko behar diren baliabideak. Azpimarratu behar da akordioa Euskararen Plan Estrategikoan, hizkuntzaren erabilera-eremuan, jasotako helburuetan kokatzen dela, eta



Euskararen Nafar Kontseiluaren familia-argazkia Nafarroako Jauregiko patioan.



Oilo kontseilaria izan da Euskararen Nafar Kontseiluaren bileraren buru.

hiztunek arlo sozial guztietan erabiltzea errazten du.

Euskararen Nafar Kontseiluaren funtzionamendua hobetzeko asmoarekin, lana aurreratzeko Lan Batzordeak osatuko dira, eta funtzio berriak gehituko zaizkie; hala nola, Euskararen Plan Estrategikoaren garapenari eta betetzeari buruzko informazioa ematea eta Lan Batzordeek egindako proposamenak eta txostenak aztertzea; horien emaitzak osoko bilkuran aztertuko dira. Bilkura honetan, ondorengo batzordeak proposatu dituzte:

Helduei euskara Irakasteko Batzordea.

Euskararen erabilera soziala aktibatzeke Batzordea, erabilera sozialerako neurriak eta herri administrazioetakoak aztertzearen.

Euskararen ospea hobetzeko Batzordea, gizartearen proposamenak integratze aldera.

Eurogutunaren txostenari buruzko informazioa ere eman dute; dagoeneko bidali zaio Espainiako Gobernuari.

Azkenik, Espainiako Gobernuak jadanik Europako Kontseilura bidali duen seigarren txostenari buruzko informazioa eman dute, espainiar estatuan eurogutuna aplikatzea ebaluatzeari buruzkoa. Ildo horretan, Adituen Batzordea bitartekari ezberdinekin udazkenean biltzea aurreikusten da, ebaluazio horren edukia azter dezaten.